


# ARAZO-EGOERAK EZAUGARRIAK


## HAUR HEZKUNTZA EREDUAK




# ARAZO-EGOERA EZAUGARRIAK



**EREDUAK**



# HAUR HEZKUNTZA



## ZER DA GURETZAT ARAZO-EGOERA?

### Hitzaurrea

Gaur egungo curriculumak konpetentzietan oinarritzen da, eta arazo egoerei erantzun egokiak ematen dakiten pertsonak prestatzeko beharra defendatzen du. Hau da, planteatzen du ikasleak egoera konplexuen eta esanguratsuen aurrean jarri behar ditugula, egoera horiek konpon ditzaten, horretarako behar den konpetentzia edo konpetentzia multzoa baliatuz.

Arazo-egoerak garrantzitsuak dira konpetentziak garatzeko, jakintzak integratzen eta jakintza horiek egoera berrien aurrean erabiltzen laguntzen dutelako.

### Arazo-egoera kontzeptua

Arazo-egoerak planteatzen dizkiegunean, ikasleek, banaka edo taldeka, informazioen multzo bat antolatu behar dute, testuinguru baten barruan, zeregin jakin bat egiteko, non ez baita oso begi-bistakoa aldeztetik zein den irtenbidea.

Ariketa konplexu mota bat da, oztopo bat aurkezten duena, erronka bat. Hura gaindituz gero, ikasleek gauza berriak ikasiko dituzte. Kontua da ikasleek arazo-egoera horren irtenbidea aurkitzea, testuingurutik kanpoko diziplina-edukiak saihestuz.

Azken finean, arazo-egoera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren abiapuntua da, bai eta konpetentziak ebaluatzeko oinarria ere.

## Arazo-egoeraren ezaugarriak

- Egoera konplexua da, funtsezko informazioa eta bigarren mailakoa ematen dituena. Ikasleek aurretik ikasitako eduki desberdinak mugitzea eskatzen du, eta jakintza berriak lortzea ahalbidetzen du.
- Ikasleek argiro identifikatu daitezkeen produkzio bat egitea du helburu: arazo baten irtenbidea aurkitzea, arte-objektu bat, objektu funtzional bat, ekintza-plan bat, eta abar. Produkzio hori itxia izan daiteke, edo erabat irekia.
- Ez da zehazki "egoera didaktiko" baten baliokidea, non irakasleak gidaturik helburu bakarra den irakastea eta ikastea. Aitzitik, arazo-egoera zehatz baten baliokidea da, bizitzaren eremu desberdinetan gerta daitezkeena, eta ikasleek aurre egiten diote, banaka edo taldeka; eskola-esparrutik kanpo ere konpondu dezakete. Nolabait, ikasleek askatasuna dute jarraitu nahi duten bidea aukeratzeko eta beren jakintzak al bait eta modu egokien aplikatzeko.
- Ikasleentzat esanguratsua izan behar du, hau gertatzen den neurrian:
  - haien interesekin lotzen den eta haien jakintzak mugitzera bultzatzen dituen;
  - haien ezagupen-mailara egokitzen den, haientzat erronka lorgarria den, errazegia ez den, eta ez dagoen haien eskumenetik kanpo;
  - zuzenean erabilgarria edo funtzionala den eta lan osoan aurrera egiten laguntzen dien;
  - haien jakintzak testuinguru batean sartzen laguntzen dien, jakintza desberdinen erabilgarritasuna agerian uzten duen eta jakintza horiek aplikatzeko eremuen mugak esploratzen dituen;
  - diziplina desberdinen ekarpena erakusten duen;
  - eta dakitenaren eta oraindik ikasteke dutenaren arteko aldea neurtzen laguntzen dien.

## Arazo-egoeraren osagarriak

Arazo-egoerak osagai hauek ditu:

- Testuingurua: zer ingurutan kokatzen den deskribatzen du.
- Arazoa: testuingurutik sortua da, eta irtenbide bat aurkitu behar zaio.
- Xedea: produkzioaren helburutzat jo behar da.
- Zeregina: espero den produktuak zehazten ditu.
- Kontsigna: lan-jarraibideen multzoa da, jarduera-sekuentzien garapenerako oinarria izan daitekeena.

## Zertarako arazo-egoerak?

Arazo-arazoek helburu desberdinak dituzte, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren barruan erabiltzen diren unearen arabera.

- Ikastaldia hasi aurretik erabiliz gero, unitate didaktikoa mugiarazten dute, unitatean edukiak sartzeko eta ikasleei aurrera egiten laguntzeko.
- Ikastaldia amaitu ondoren erabiliz gero, lortu nahi diren kompetentzien arabera eskuratutako edukiak ebaluatzeko balio dute.

## Laburpen gisa

Hona kompetentzien hezkuntzaren planteamendua: ikasleei arazo-egoerak planteatu behar dizkiegu, kompetentziak gara ditzaten egoera horiek konpontzerakoan.

Ikaskuntza-prozesu osoan zehar, kontuan hartu behar dugu arazo egoeren bidez saiatzeko ari garela bizitza errealean gertatzen dena islatzen, non pertsonak aurrean dituzten arazoak ez dauden inoiz "diziplinen arabera sailkatuta".

Beharrezkoa da, horrenbestez, ikaskuntza-prozesuek jakinduriak integratzen eta orokortzen laguntzea, egoera berrietan aplikatzen errazteko.



## GLOSARIOA

### **Testuingurua**

Arazo-egoera zer ingurutan kokatzen den deskribatzen du, hau da, arazo baten inguruan dagoen zirkunstantzia-multzoa, zirkunstantzia horiek egon ezean, ez bailitzake arazoa ulertzerik egongo. Testuinguruan, zenbait konturekin erlazionatutako datuak ager daitezke, hala nola arazoa kokatzen den lekuarekin, unearekin, ukitzen dituen pertsonekin edo talde sozialekin, kausekin, eta abar...

Ahal den neurrian, saiatzen gara ikasleengandik gertu dagoen testuinguru bat aurkezten, eta esanguratsua dena, hau da, eremu akademikoaz gain, edozein jarduera-eremu islatzen duena (pertsonala, soziala, lanekoa...).

### **Arazoa**

Mario Bungerearen definizioaren arabera, "zailtasunen bat daukan egoera bat da arazoa, zeina konpontzeko, ez dagoenez berez bide bat, deliberazio edo ikerketa kontzeptuala edo enpirikoa behar baita". Arazo bat, horrenbestez, ariketa konplexu bat da, zailtasunen bat duena, eta hura konpontzeko bide bakarra ez dagoenez, ikerketa-prozesu bat betetzea eskatzen du.

Arazoa ebazteak dakar berarekin batera zenbait eduki eta konpetentzia mugitzea eta integratzea.

## **Xedea**

Helburuetatik haratago doa, izaera globalagoa dauka, eta konpetentziaren osagairen batekin erlazionatu daiteke, zuzenean edo zeharka.

## **Helburuak**

Arazo-egoera batek ez du berez helburu didaktikorik; haiek Unitate Didaktiko baten elementuak baitira.

Arazo-egoera horretatik abiatuta, unitate didaktiko desberdinak garatzeko aukera egongo denez, proposatzen diren helburu didaktikoak egon daitezkeen unitate didaktikoren bati dagozkionak izango dira.

## **Ataza**

Zer produktu lortu nahi den zehazten du. Hala, bada, zehaztu behar dugu zer espero dugun ikasleek egitea. Argiro identifikatu daitezkeen produkzio bat da: arazo bati emandako konponbidea, objektu funtzional bat, ekintza-plan bat,... Zeregina egiterakoan, ikasleek Unitate Didaktikoa garatzean ikasitakoa erabiltzen dute.

## **Jarraibideak**

Jarraibide orokorrak dira, eta Unitate Didaktikoan jarduera sekuentzien garapena markatzen dituzten funtsezko kontuak jasotzen dituzte.

## ARAZO-EGOERA

**Izenburua:** Iñauterietako txanoak

Eremua

"Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua" eta "nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua".

Maila:

### Testuingurua

Inauteriak datoz eta eskolan kontinente ezberdinen inguruan mozorroztea erabaki dugu. Haur Hezkuntzakook, txinatar mozorrotuko gara.



### Arazoa

Haur Hezkuntzakook, kartulinazko txanoak egin behar ditugu. Baina zenbat kartulina erosi behar dugu? Non erosiko dugu? Zenbateko kostua du? Zein koloretakoak?

### Xedea

Iñauteritako mozorroaren osagarriak egitea

### Helburuak

- Eskolan ditugun baliabideak nondik datozen jabetzen hastea.
- Zenbakikuntza eta kalkuloan trebatzea.
- Katalogo ezberdinen azterketa egitea.
- Kontsumoaren inguruko hausnarketa bideratzea.
- Saltzaile/erosle harremanak ezagutzen hastea.

### Ataza

Haur Hezkuntzako geletan txanoak egiteko zenbat kartulina eta zein koloretakoak beharko dituzten zenbatu ondoren, hauen kostua kalkulatu da eta eskaera egingo da.

Iñauteri jaialdirako txanoak prest egongo dira.

## Jarraibideak

- Arazo-egoera aurkeztu eta planteamendua zehaztu.
- Gelan txano eredu bat aurkeztu eta guk geurea egiteko zer behar dugun adostu.
- Talde txikietan bildu eta zenbat kartulina beharko ditugun kalkulatu, kolore ezberdinetakoak behar badira, bakoitzetik zenbat zehaztu.
- Katalogoan begiratuta, gelako gastuaren zenbatekoa atera.
- Talde handian, aurrekontu guztiak aztertu eta egokiena aukeratu.
- 5 urteko gelara eraman adostutako aurrekontuak eta hauek gela guztien kalkuloa egin eskaera osatzeko.
- 5 urtekoak idazkariaren laguntzaz eskaera egin.
- Eskaera jasotakoan banaketa gelaz gela jasotako aurrekontua jarraituz.
- Proiektuaren eta ikaskuntzaren talde-ebaluazioa egin.

## ARAZO-EGOERA

<b>Izenburua:</b>	<b>Eskola triptikoa</b>
Eremua	"Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua" eta "nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua".
Maila:	

### Testuingurua



Aurrematrikula garaia iristear da eta ate irekiak antolatuko dira eskolan. Ikastetxeak triptikoa berritu behar du eta ikasleei partaide egitea ondo ikusten da.

### Arazoa

Kurtso berriarekin batera, ikasle berriak izango ditugu gure artea. Anai-arreba batzuk eskolan hasiko dira gurekin:

Zer esan diozue? Nolakoa da gure eskola? Zer egiten dugu? Zein baliabide ditugu?

Nola azaldu daiteke informazio hori familiei?

### Xedea

Ikastetxeko informazio triptikoa berritzea.

### Helburuak

- Eskolaren ezaugarrietaz jabetzea.
- Informazioa zabaltzeko eredu ezberdinak ezagutzea.
- Neurketa eta zenbaketa tekniketan trebatzen hastea.
- Talde lanean aritzeko estrategiak barneratzen hastea.
- Beraien produkzioen erabilgarritasunaz jabetzea.

- Irakurketa-idazketa lantzea, ahozkotasuna ardatz harturik.
- Teknologi berrietan lehen urratsak ematen joatea

## Ataza

Talde bakoitzak eskolako ezaugarriak adierazten dituen triptiko bat osatuko du. Triptiko hauek ate irekien egunean erakusgai egongo dira.

Eskolarako osatuko den triptiko berriak, ikasleak sortu dituzten atalen batekin osatuko da.

## Jarraibideak

- Arazo-egoera aurkeztu eta planteamendua zehaztu.
- Guztion artean triptiko ezberdinak aztertu eta honen ezaugarriak identifikatu.
- Triptikoaren zirriborroa diseinatu.
- Talde txikietan eskolako ezaugarri nagusiak izendatu eta triptikoak jasoko dituenak adostu.
- Eskolako plano egiteko, neurketa modu ezberdinak aztertu: oinkadak, metroak, eta egokiena aukeratu.
- Aukeraturiko espazio eta ekintza ezberdinen argazkiak atera.
- Triptikoa osatu.
- Ate irekietarako triptiko erakusketa antolatu.
- Proiektuaren eta ikaskuntzaren talde-ebaluazioa egin.

## ARAZO-EGOERA


**Izenburua:** Akuariumeko arrainak

**Eremua:**

“Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua” eta “nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua”.

**Maila:**

## Testuingurua



Akuariumera irteera egin behar dugu eta gelan bertan ikusiko duguna aztertzen hasi gara.

## Arazoa

Pelikulako “Nemo” arraina bezalako arrain pailazoak daudela jakin dugu. Baina hauek ur tropikaletako arrainak dira eta Donostiako ura tropikala da? Ez? Orduan, nola bizi daitezke bertan akuariuma itsaso barrenean badago?

## Xedea

Ekosistema kontzeptuaz aritzea.

## Objetivos

- Ekosistema kontzeptua ezagutzen hastea.
- Lekuan lekuko bizitza mota ezberdinak aztertzea eta bertako ezaugarriak bizidunengan duten eraginaz hausnarketa bideratzea.
- Ekosistema ezberdinetako bizidunak beste ekosistema batera egokitzeko beharrezko aldaketaz jabetzea.
- Naturarengan dugun eraginaz hitzegitea eta jarrera egokien inguruko lanketa bideratzea.

## Ataza

Akuariumeko irteera prestatzeko orduan, bertan ikusi dezakeguna aztertu eta zein egoeratan bizi diren zerrendatu.

Irteera, gai bezala hartuz erakusketa bat egingo da eta bertan lanketaren dokumentazioa jasoko da.

## Jarraibideak

- Arazo-egoera aurkeztu eta planteamendua zehaztu.
- Alkuariumeko eskaintza aztertu eta bertan ikus daitezkeen animalien informazioa taldetan banatu.
- Bertako arrainak eta beste lekuetakoak zeintzu diren ezberdindu.
- Ekosistema hitza ulertzeko talde txikietan beraien definizioa osatu.
- Talde handietan definizio ezberdinak aztertu eta horri buruzko hausnarketa bideratu.
- Arrain bakoitzak zein moldaketa behar izan duen zerrendatu eta Akuariumera joaten direnerako dokumentua prestatu bertan kontsultatu eta konfirmatzeko.
- Proiektuaren eta ikaskuntzaren talde-ebaluazioa egin.



## ARAZO-EGOERA

**Izenburua:** Urtebetetze agenda

**Eremua:**

“Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua” eta “nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua”.

**Maila:**

HH 5 Urte

### Testuingurua

Gela berriari antolaketa aldaketa handia eman da. Txoko berriak daude, esperimentaziorako materiala ere berria dugu...

Orain arte hormetan genituen letra, zenbaki, egutegi, zerrenda... guztiak ere ez daude. Hutsik ditugu.



### Arazoa

Urtebetetzeko trena ere ez dago, eta guri urtebetetzeak ospatzea asko gustatzen zaigu. Nola jakingo dugu noiz ospatuko ditugun?

### Xedea

Urtebetetze agenda sortzea.

### Helburuak

- Arazo-egoera aurkeztu eta planteamendua zehaztu.
- Gelako IKT baliabideak erabiltzen hastea.
- Googlen egutegiaren funtzionamenduan trebatzen joatea.
- Zereginen sekuentzializazioa barneratzeko lehen pausoak ematen astea.
- IK-KI talde egituretan ohitzen joatea.
- Zenbakikuntza lantzea eta sinbologiara hurbiltzea.
- Bizi garen ingurunekeo data esanguratsuak ezagutzen joatea.
- Proiektuaren eta ikaskuntzaren talde-ebaluazioa egin.

## Ataza

Google egutegia erabiltzen hasi gelakideen urtebetetzea jasoaz.

Ikasturtean zehar, gogoan izan beharreko ekintzak egutegi ajendan sartzen joan eta erabileran trebatu.

## Jarraibideak

- Talde haundian elkarrizketa bideratu gelakideen urtebetetzeak nola jaso ditzakegun eztabaidatzeko.
- Etxetik agenda ezberdinen ereduak ekarri.
- Talde txikitan eredu ezberdinen erabilgarritasuna aztertu eta alde ona eta txarren zerrenda egin.
- Talde handian aurretiko lana komunean jarri eta IKTrekin zerikusia duten ereduetan zentratu.
- Google egutegia erabiltzen hasi, denen artean datuak sartu.
- Egunero talde txiki batek ordenagailuan egutegia begiratu eta zereginak aztertu ondoren gelakideei jakinarazi